



Blues doinuen oihartzunak Zizurkilen

JAIALDIA ▶ IV. Blues Musika
Jaialdia egingo dute gaur
herriko hainbat tabernatan

TALDEAK ▶ King Bee, Arima Beltza,
Miki Nervio & The Bluesmakers,
eta Ñako Goñi y los Bluescavidas ▶ 4



Arima Beltza taldeak joko du gaur Zizurkilen. HITZA



N. URBIZU

Kaldereroen hots alaiak kaleetan barna

TOLOSALDEA ▶ Anoeta eta Irurara, Ibarrara eta Zizurkilera
iritsi ziren atzo arratsaldean, zartagien eta eltzeen zarata artean ▶ 5

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Arrospide eta Otaegi, Urrezko Aizkolarien finalaren atarian

Elite mailan lehiatuko da leaburuarra,
eta gazteen finalerdian zizurkildarra ▶ 2

BERROBI ▶

I. Tene Mujika beka irabazi du Ramon Olasagastik

'Mendiminez'
lanarekin ▶ 6

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Premiazko deia Saharako egoera larriari aurre egiteko

Kontu korrontea ireki dute; Karrape
irratian 5.300 euro bildu dituzte ▶ 6

AIZKORA ▶



Joseba Otaegi, ezkerrean, eta Arkaitz Iriarte urrestildarra besoak jasota, 2005eko Urrezko Aizkora irabazi ostean, Azpeitian. I. OTEGI / ARGAZKI PRESS

INÍGO ASENSIO

Binakako Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalerdikoak jokatuko dira asteburu honetan, eta bertan Angel Arrospide leaburuarra eta Joseba Otaegi zizurkildarra lehiatuko dira finalera heltzeko helburuarekin. Lehenak badaki zer den Urrezko Aizkora lortzea, hain zuzen ere, 2002. urtean txapeldun izan zelako. Orduan, Arrospidetik Arria Varekin hartu zuen parte, Nazabal eta Lopez Azpilikuetaren aurkako finala irabaziz. Igandean Durangoko plazan jokatuko diren finalerdikoetan, Arrospidetik Mugerza izango du lagun, eta lehengo urteko edizioako irabazleak, Nazabal eta Erdozia, izango dituzte aurkari gisa. Gainera, Nazabal 2001. urtean ere irabazle izan zen Peñagarikano bikote zuela, baina 2002ko finala galdu zuen, hain zuzen ere, Arrospideren aurka. Horregatik, kanporaketak ez du faborito nagusirik. Badirudi Mugerza Erdozia baino sasoi hobean dagoela, eta honek lehia desoreka badezake ere, kanporaketa berdindua espero da Durangon.

Arrospidetik orain arte egin dako lana ona izan dela aitortu du, baina jakin ere badaki he-

Arrospide eta Otaegi, Urrezko Aizkolarien finalerako lehia

Leaburuarrak elite mailan eta zizurkildarrak gazteen mailan finalerako txartela bilatuko dute asteburuan

mendik aurrera geratzen den txapelketa zailagoa izango dela. «Aurkari gogorrek» izango dituztela garbi dauka leaburuarrak. «Elkarrekin bikain aritzen den bikotea da. Nazabal bitan izan da txapeldun eta bere bikotearen maila hain ona ez bada ere, oso aurkari gogorrek dira». Bestalde, Arrospidetik badaki etsaien egoerari erreparatzea baino garrantzitsuago dela askotan norbera eron goera kontuan izatea. «Gu ondo gaudela iruditzen zait. Lehiaketa hasieran baino hobeto ez bagaude, okerrago behintzat ez. Atsedanak mesede egin digula esango nuke, nahiko egoera onean garelak».

Finalerdiko honetan zer ger-

tatuko den jakina ez bada ere, joan den igandean Leitzan jokatuko zen beste kanporaketa, eta horrenbestez, finalerako sailkatu den bikote bat bada. Mindegia eta Senosiani buruz galdetzean, Arrospidetik ez du uste etsai «gogorrekiak» direnik. «Igandean beraien lana aztertzen aritu ginenak jabetu ahal izan ginen ez zutela sekulako lana egin. Errespetu osoz begiratu behar bazaie ere, finalerdia finala bera baino gogorragoa izango dela iruditzen zait, sailkatzen dena sailkatzen dela». Nagusien txapelketako kanporaketak 12:30etan izango dira ikusgai, Durangon.

Gazteen txapelketari dagokionez, Joseba Otaegi 2005eko txapelketako irabazle kondizioari heltzen saiatuko da. Bere bikotea oso gaztea bada ere, 15 urte besterik ez baititu Gari-koitx Larretxeak, Aldape eta Atutxaren aurka garaipena lortzeko esperantzak ditu zizurkildarrak. «Orain arte gustura aritu gara. Bikotea gaztea da

oso, baina ondo ari da. Aldape eta Atutxa lehia ikusi nituen saio batean eta ondo aritu baziren ere, finalera pasatzeko esperantzak dauzkagu. Aurkari onak diren arren, larunbateko saioa berdindua izango dela iruditzen zait».

Dimako frontoian izango da aipaturiko finalerdikoa, eta bertan Larretxea gaztearen papera garrantzitsua izango da oso. «Nerbioak gero eta gehiago nabarituko ditu, baina etxean maisu eta inguruko onak ditu eta ziur ondo arituko dela». Beste finalerdikoan Mugerza anaiek Amilano eta Gorriti III.a izango dituzte aurrean, baina Otaegiren ustez, «Mugerza anaiek irabaziko dute dudarik gabe». «Txapelketa hasiera-hasieratik kontrolatu dute, eta garbi dago finalean izango direla». Bikote erregularrak direla ere aipatu du zizurkildarrak. «Bikote gehienetan, aizkolaria batek eraman behar izaten du lehiaketaren pisua, baina kasu honetan biak oso



ANGEL ARROSPIDE
AIZKOLARIA

«Finalerdia finala bera baino gogorragoa izango dela iruditzen zait, sailkatzen dena sailkatzen dela»

«Nazabal bitan izan da txapeldun eta bere bikotearen maila hain ona ez bada ere, oso aurkari gogorrek dira»



JOSEBA OTAEGI
AIZKOLARIA

«Aldape eta Atutxa aurkari onak diren arren, larunbateko saioa berdindua izango dela iruditzen zait»

«Larretxeak nerbioak gero eta gehiago nabarituko ditu, baina etxean maisu eta inguruko onak ditu»

antzeko aizkolaria dira». Finalera iritsiz gero, beraien aurka gauzak zailak izango liratekela onartu du Otaegik. Dimako frontoian, gaueko zortzietatik aurrera izango da ikusgai Urrezko Aizkolaria gazteen saio hau.

Banakakoa ere Durangon

Aipatu ditugun binakako txapelketako finalerdikoez gain, banakako txapelketako bi kanporaketa ere jokatuko dira Durangoko plazan.

Aldate batetik, joan den asteburuan Leitzan garaila izan zen Xabier Mindegia eta Elorriaga kanporatu zuen Juan Angel Zubiaga lehiatuko dira. Beste kanporaketan, Juan Rodriguez eta Jon Rekondo leitzarrak neurtuko dituzte beren indarrak.

Beti alai
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zertan ari da PNV?

Urtarrilaren 7an Bilboko kaleek aspaldiko urteetan izan den manifestaziorik handiena eza-gutu zuten: 40.000 lagun baino gehiago euskal presoekin eskubideen aldeko aldarrikapena eginez. Ibaetako Forotik etorri zen deialdia eta babes politikoa, sindikal eta sozial zabala jaso zuten... Baina ez zen PNVren arrastorik izan.

Urtarrilaren 21ean BECen ekitaldia antolatzen zuten Batasunak. Euskal Herriko herrietan bi hilabetez emandako prozesuaren ondorioak aurkezteko ekitaldi nazionala zen egitekoa, baina Madriletik debekua iritsi zen. Euskal Herriaren aurkako beste errepresio urrats bat. Debeku honen haritik, bilera eta zalaparta ugariaren on-

doren, Euskal Herriko eragile politikoa eta sozial gehienak eskubide sozial eta politikoen aldeko ekitaldia deitu zuten BECeko kanpoaldean. Herri ezberdinen babes eta nazioarteko elkartzak jaso zuten ekitaldiak. PNV ekitaldira gerturatu zen; izan ere, Espainiako agintuak zintzo betez Ertzaintzaren 23 furgoneta eta bi helikoptero bidali zituen ekitaldia gertutik zaintzera.

Joan den larunbatean, otsailaren 11n, Askatasunak torturaren aurkako manifestazioa deitu zuten Donostian. Milaka lagun bildu ginen Joxe Arregi torturaturik hil zutela 25 urte bete diren honetan, 6 hildako, 6.000 salaketa baino gehiago eragin dituen eta oraindik dirauen tortura behingoz amaitzeko aldarrikapena eginez.

Unai Romanoren kasuaren artxibatzearen aurrean PNV-

ren isiltasuna nabarmena izan da aste osoan zehar, baina larunbatean PNVk bere modura Donostian egon nahi izan zuten. Eta zaindu baino gehiago egin nahi zuenez, manifestazioa Donostiako erdialdean zegoela aprobetxatuaz Bulebarraren zeuden pankartak gogtsu kentzen jardun zuten bere agindupean ertzainek. Honela, manifestazioa Bulebarrera iritsi zenean ez zen torturatuak izan diren hainbat euskal herritarren testigantzarik irakurtzeko aukerarik izan.

Larunbatean bertan Usurbilen herritarrek herriko Aitzaga elkartearen babesten zuten bitartean, PNVren aginduz, Ertzaintzak Guardia Zibilaren sozio lanak zintzo betez jardun zuten.

Euskal Herria bere bidea egiten ari da, eta herri honek konponbidearen bidean pausoak ematen dituen bakoitze-

an ematen den bezala, oraingoan ere oso eraso gogorra jasaten ari da gure herria.

Baina sektore ezberdinen artean elkartzeko borondatea eta gatazka politikoa gaitziteko urratsak eman nahi bat ikusten da. Nazio Ertzabidagunetik Aberri Egun baterako soinuak entzun herri ditugu, PNVren arduradun bat «horretarako arrazoi berezirik» ez dagoela esanez etorri bada ere.

Une ezberdinetan euskal gizartea erantzuteko jarrera eratarako arrazoi berezirik» ez dagoela esanez etorri bada ere. Une ezberdinetan euskal gizartea erantzuteko jarrera eratarako arrazoi berezirik» ez dagoela esanez etorri bada ere.

Herritarren hitzari burula eginez zinegotzi lapurrak mantenduz udaltxeetan, herriko presoekin egoeraren inguruan jartzen ditugun pankartak jarri orduko kentzeko aginduak

emanez (aazkenekoak, *Pello Odriozola, 18 urte espetxean noiz arte?* zioten hamaika pankarta).

Gaur 18/98+ plataformak deiturik milaka herritarrek elkar ikusiko dugu Bilboko kaleetan. Astakeria politikoa juridikoa behingoz geratzea eskatuko dugu bertan. Ugariak eta anitzak dira plataformak jasotako atxikimenduak eta gaur parte hartzeko dialdia egin duen jendearen kolore ezberdinek manifestazio handi bat iragartzen dute.

Ea oraingoan PNVk alderdikeriak alde batera utzi eta herri honen gehiengoaren eskaerakin bat egiten duen. Euskal Herriaren aitortza eta erabakitze duen eskubidea bide hone-tatik bakarrrik gauzatu ko baitira.

JOSUNE AGIRREZABALA ETA ANAJE URKOLA (BATASUNKIDEAK) ▶ TOLOSA

INAUTERIAK ▶
NOELIA LATABURU

Leidor zinema aretoan berritze lanetan ari direla eta, aurtengoan Beotibar pilotalekuan egingo dute Inauterien atarian Aiz-Orratz elkarteak eskualdeko haurrentzat antolatzen duen jaialdia. 16:00etan Aiz-Orratz-Veleta txaranga elkartearen egoitzatik irtengo da herriko kaleak alaitzeko, eta ordu erdi beranduago emango zaio, hain zuzen ere, hasiera ekitaldiari. Joseba Usabiaga eta Maier Lopetegui ariko dira aurkezle lanetan, eta haurrek Poxpolo ta Mokolo pailazoan eta Alberto Handia magoaren ikuskizunekin gozatzeko aukera izango dute, besteak beste.

Antolatzaileek iragarritakoren arabera, bertaratzen diren haur guztiak askaria jasoko dute. Aipatutako ikuskizun horiez gain, marrazki lehiaketaren eta mozerro lehiaketaren sariak ere banatuko dituzte antolatzaileek, eta haur guztien artean sari berezi bat zozketatuko dute, gainera.

Tolosaldeko ikastetxe guztietako 2.400 gaztetxoren partaidetzarekin, kartel lehiaketa antolatzen du Aiz-Orratz elkarteak aurtengoan. Tolosako Inaute-

Beotibar pilotalekua txantxoz jantziko dute gaur, Haur Jaialdian

16:30etik aurrera, mozerroen eta marrazkien lehiaketak eta Poxpolo eta Mokolo eta Alberto Handia magoa izango dira



laz ere Poxpolo eta Mokoloren bisita izan zuten Haur Jaialdian parte hartu zuten haurboek. N. LATABURU

riak iragartzeko kartela osatu dute parte-hartzaileek marrazkiekin, eta egindako lanak lehiaketara aurkeztu dituzte. Bada lehiaketako irabazleen izenak gaur jakinaraziko dituzte, arratsaldean, Haur Jaialdian. Mailatan banatu dituzte gaztetxoak adinaren arabera, eta maila bakoitzeko lau sari banatuko dituzte. Irabazleek garai- kur bana jasoko dute.

Mozorro lehiaketa

Mozorro lehiaketan parte hartzeko, berriz, Harizpe elkartearen eman beharko dute haurrek izena lehenik 15:00etan, eta 18:00etan, Leidor zinema aretoan izendatuko dituzte, mailaz maila, mozerro lehiaketako irabazleak. 5 urtetik gorakoen artean hautatuko dituzte aurtengo Inauterietako haurren bost ordezkariak. Gainera, 4 urte bitarteko haurren artean mozerro onenari saria eta parte-hartzaile guztien artean partaide jatorrenari saria banatuko dituzte. Sariarik lortu ez duten haurren artean beste hiru opari zozketatuko dituzte antolatzaileek. Bestalde, haur guztiak Beotibarrera txantxoz jantzita joatea eskatu dute.

iragarki laburrak ▶
LANPOSTUAK

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.
Haurtzaindegi publikoak. zaintzaileak, hezitzaileak... behar

dituzte haurtzaindegi publikoak.

943 313782.

Peioiak. Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782.

Gidariak. Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak.

Kontratu mugagabeak.

943 313782.

Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak. Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. 943 313782.

Suhiltzaileak, Ertzaintza, polizia.

2006ean lanpostu berriak.

Informazioa: 943 313782.

Haur eskolak. Haur zaintzaileak eta

haur hezitzaileak behar dira.

943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro,

Anoeta. Lanaldia astelehene-tik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

Langileak. Obrataro langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan.

943 313782.

ZIZURKIL ▶ MUSIKA

Blues doinuez bustiko dira herriko tabernak gaurko kontzertuekin

IV. Blues Musika Jaialdian lau talderen emanaldiak, tartean Arima Beltza eta Ñako Goñi y los Bluescavidas



Arima Beltza seikote elgoibartarra izango da jaialdian parte hartuko duen taldeetako bat. HITZA

IMANOL GARCIA

Blues musikak Zizurkilgo herria hartuko du gaur gauean, dagoeneko ezaguna egiten ari den Blues Musika Jaialdiaren laugarren edizioa antolatu baitute. *Zizurkilgo ezar ez ta festa!* zikloaren baitan eta Udalaren laguntzarekin, herriko hainbat tabernetan blues-zaleek gozatzeko aukera izango dute. Kontzertu guztiak doan izango dira.

Imanol Eizmendik, Jaialdiko antolatzaileetako batek, adierazi duenez, aurten blues musika izango da nagusi: «Aurreko

urteetan blues-az gain beste musika mota batzuk ere ekarzen genituen, baina aurten blues musika egiten duten lau talde ariko dira. Hori bai, blues estilo ezberdinak uztartu nahi izan ditugu». Kontzertuetan sortzen den giroa nabarmendu du Eizmendik: «Blues-a bere giroa, tabernatara, ekarzteza da gure helburua. Musika-riak eta entzuleak oso gertu daude eta harreman zuzen hori bi aldeek eskertzen dute».

Kontzertuez gain aipatzekoa da ere Aurrera tabernan, azken kontzertuaren aurretik eta ondoren, DJ Irlak musika jarriko

duela. «Ez da nolanhiko musika izango», dio Eizmendik. «DJ Irlak blues-eko klasiko asko jarriko ditu biniloan. Hau da, Jaialdiko giroa mantentzeko kalitateko blues musika entzungo da».

King Bee. Aurrera tabernan ariko da, 22:30ean. Madrilgo talde sortu berria da, eta lehenengo aldiz etorriko da Euskal Herrira. Blues klasikoak egiten dute, suffle, funky, boogie eta trenea estiloak uztartuz. Muddy Waters, Little Walter, Jimmy Red eta antzeko musikariaren eragina jaso dute. Batez ere

bertsioak egiten dituzte. Aurretik talde ezberdinetan aritutako musikariek osatzen dute King Bee.

Miki Nervio & The Bluesmakers. Egarrri tabernan eskainiko dute beren kontzertua, gauerdian hasita. Hiru disko atera dituzte, azkena Ñaco Goñiren kolaborazioarekin zuzenean grabatutakoa, *Directo en Pontevedra* izenekoa. Blues klasikoak egiten du Galiziako taldeak, 30. hamarkadako artistak bertsionatuz. New Orleans estiloa egitea dute berezitasuna: garbitzeko tabla (*wash troos table* ingelesez), banjoa, kontrabaxua eta slade gitarra dira erabiltzen dituzten instrumentuak. Galizian sona handia du taldeak.

Arima Beltza. Atxulondo tabernan emango dute kontzertua, 01:30ean hasita. Bigarren aldiz datoz Jaialdian, eta lau taldeetatik Euskal Herriko bakarra da. Hiru disko atera dituzte eta azkenekoan, blues-a erreferentzi bezala badute ere, pop-rock eta heavy estiloak ere jorratu dituzte. Hain zuzen ere, estilo horiek guztiak uztartzeko modu kuriosoa dute. *Mundurako ateak* du izeburu talde elgoibartarraren azken diskoak.

Ñako Goñi y los Bluescavidas. Aurrera tabernan joko dute. 03:00etan hasita. Hirugarren aldiz da Madrilgo taldea Zizurkilera etorriko dena. Espainian ezagunenetakoa den blues taldea da, eta Euskal Herrian ere sona handia dute. Ñaco Goñi aho-soinulari ezaguna da taldeko burua. Egiten dituzten zuzeneko kontzertuengatik oso ezagunak dira.

18/98 AUZIA ▶

Hilaren 27ra atzeratu dute epaiketa

18/98 sumarioaren epaiketa hilaren 27a arte atzeratu du epaimahaiak, Mikel Egibaren gaixotasuna dela eta. Neumonia du zizurkildarrak, eta medikuen txostena jaso ondoren hartu du erabakia Espainiako Auzitegi Nazionalak. Bestalde, Asteasuko ezker abertzaleak deialdia luzatu du 18/98 + plataformak gaur Bilbon antolatu duen manifestaziora joateko. 15:00etan elkartuko dira plaza Villabonara joan eta bertan, Subijanan, autobusa hartzeko, 15:30ean.

ASTEASU ▶

Abesbatza astelehenetan bilduko da

Asteasun sortu den abesbatza herrikoiairen partaideek entsegetako eguna aldatu dute. Orain astelehenetan bilduko dira, 20:00etan, Zentro Soziokulturalean. Parte hartu nahi duten guztiak deialdia luzatu diete entsegetara azaltzeko.

VILLABONA ▶

'Cronicas de Narnia' filma, Gurea aretoan

Villabonako Udalak Gurea aretoan haurrentzako antolatutako emanaldien baitan, gaur eta bihar zine proiektioak eskainiko ditu. *Cronicas de Narnia* filma ikusteko aukera izango dute, eta bi emanaldiak 17:00etan hasiko dira. Filmak bi ordu baino gehiago irauten du.

VILLABONA ▶

Malabare tailerra Gaztetxearen eskutik, gaur

Villabonako Gaztetxeak malabare ikastaroa antolatu du, haur eta gazteei zuzendua. Gaur elkartuko dira, 11:00etatik aurrera, Errebote plazan. Besteak beste, «konzentrazioa garatu, estresa gutxitu eta oreka eta arintasuna» landu» egiten dira malabarekin. Mazak, zankoak, makila txinatarrak, pilotak, karioka, zinta, diaboloa, oreka soka... erabiliko dituzte tailerlean.

VILLABONA ▶ PILOTA

Behar-Zana elkarteko talde bat izango da berriro Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketako irabazlea

Gaur jokatuko dute finala Amasako pilotalekuan Alejo-Sanchez eta Alejo-Mitxelena bikoteek

I. GARCIA

Behar-Zanako bi taldeek jokatuko dute gaur, Amasako pilotalekuan, Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketaren finala. Jon Alejo eta Sergio Sanchezek osatzen dute Behar-Zana 1 taldea, eta Igor Alejo eta Xabier Mitxelena Behar-Zana 2 taldea.

18:00etan izango da norgehiagoka, eta Alejo-Sanchez

bikotea da faborito. Igor Alejo horrela uste du: «Azkeneko txapelketak haiek irabazi dituzte eta normalena izango litzateke biharko [gaurko] finala ere irabaztea». Alejo-Mitxelena bikoteak, baina, ez du amore ematen: «Ezustekoa emateko asmoa dugu, noski».

Sergio Sanchezek faborito papera onartzen du: «Aurten maila onean jokatzen ari gara. Euskal Herriko Txapelketaren

finalerdietara ere iritsi ginen». Iazko finalean protagonista berdinek jokatu zuten Zubietako pilotaleku berrian, eta orduan Alejo-Sanchez bikoteak eskuratu zuen txapela.

Beste partidak

Gaur, eta Amasako pilotalekuan, baina goizean, Behar-Zanako pilotariek partidak jokatuko dituzte. 11:00etan, Euskal

Herriko Txapelketaren baitan, eskuz banaka, Urbietan lehen mailako kadetea Arbizuko (Nafarroa) Aldabide taldeko Galarzaren aurka ariko da.

Ondoren, 12:00etan eta Udaberri Txapelketaren baitan, bigarren mailako kadeteetan eta eskuz binaka, Behar-Zanaren aldetik Ordozgoitiek eta Irurzunen jokatu dute, Elgoibarko Lagunak taldearen bikotearen aurka.

KALDEREROAK ▶



Zizurkil. Pedro Mari Otaño ikastetxeko ikasle gazteenak kaldererok jantzi eta herrira atera ziren, guraso eta irakasleekin batera. Katilu, eltze, nahiz zartagiak esku batean, eta mailuak bestean, Kaldereroen koplen erritmoak ongi jarraitu zituzten. Askok, konpartsa hasi aurretik zartagiak hautsi egin zituzten, jasotako mailukadak zirela eta. N. URBIZU



Anoeta-Irura. Loatzo musika eskolako irakasle eta ikasleek jo zuten Kaldereroetako musika, perkusio tresnekin eta haizezko tresnekin. Anoetako plazatik Irurara joan ziren. N. URBIZU



Ibarra. Herriko ijito txikiak plazara joandako gurdian sartu ziren, kaleetan zehar arinago ibiltzeko. Kasu honetan ere musikariek konpartsa girotu egin zuten. N. URBIZU

Giro atsegina eta hots alaiak kaleetan barna

Kaldereroek giro polita sortu dute kaleetan, zartagien eta eltzeen zarata adigarriarekin Inauterien etorrera iragarri

NEREA URBIZU

Aurten ez du euriak Kaldereroen konpartsa zapuztu, zeru zati urdinak ere ikusi baitira Tolosaldeko hainbat herritan. Zizurkilan izan ziren lehenak, 19:30ean hasiera emanez. Eskolako haurrek guraso nahiz irakasleen laguntza izan zuten kalejira egiterako orduan. Herrian zehar ibili ziren ikusleei koplak abestuz, eta zartagine-

kin hots ordenatuak ateraz, musikaren soinuarekin batera. Haur txikienek gurdian sartuta egin zuten bidaia. Anoetan eta Iruran ere Hungariatik etorritako ijitoak zartagiekien joka aritu ziren, eta lehengo urtean ez bezala hasiera Anoetan izan zuten. Entseguak nabaritu dira, ongi aski jarraitu baitzituzten irakaslearen adierazpen eta keinuak. Loatzo musika eskolako

ikasle eta irakasleek Kaldereroen martxa jo zuten eta haurrek adi-adi jarraitu zituzten melodiak eta kantuak. Jende asko bildu zen Anoetako plazara, eta Irurako jendea ere oinez Anoetara joatera animatu zen. Kaldereroen konpartsak Ibarraoekin bukatu zituzten atzokoan. 18:30ean hasi zuten martxa herriko plazatik, eta entseguetan ikusi ahal izan zenez bezala, denek egoki erantzun

zuten; Ibarra ere entseguak nabaritu baitziren. Han ere Loatzo musika eskolako laguntza izan zuten bertaratutako zartagijotzaileek. Hauspoa elkarrean elkarlanean-ek eta musika eskolak antolatua izan da egun hau. Ibarrako haurrek plazara eramandako gudi koloretsu batean sartu zituzten, herrian kalejira hasi aurretik. Gurdiaz tiraka traktore txiki bat aritu zen. Anoetan eta Zizurkilan haize petral samarra aritu zen, baina euririk eta hotz handirik egin ez zuenez, eguna biribila atera zen. Gaur Tolosan izanen dira Kaldereroak: 19:30ean, Triangulo plazatik abiatuko da konpartsa. Baina aurretik hainbat ekitaldi daude, besteak beste, 16:30ean, Haur Jaialdia Beoti-barren.

TOLOSA ▶

Txistulariak eta Musika Banda, Inaute kontzertuan

Bihar, 12:15ean, Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak Inauterietako kontzertua eskainiko dute Plaza Berrian. Bi ataletan banatuko dute saioa. Lehenengoan, 9 obra eskainiko dituzte txistulariek. Musika Bandak, aldiz, 17 eskainiko ditu; beste artean, aspaldiko Inauterietako kanta bat entzuteko aukera izanen da.

ALEGIA ▶

Karmenak antolatzen bilerak hastear

Heldu den asteartean bilduko dira alegiarrak Karmenetako festak antolatzen lehenengo bilera egiteko. 19:30ean elkartuko dira Alegiako udal-txean. Bilerak irekiak dira, eta proposamen guztiak kontuan hartzen ahaleginduko direla azaldu dute.

TELEFONOAK ▶

- Larrialdiak. ((112)) Osasuna.**
- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
 - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
 - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
 - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
 - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
 - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
 - ▶ Ibarra. Osasun ebea: 672411
 - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
 - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
 - ▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800
 - ▶ Orendain. Medikua: 655595
 - ▶ Orea. Medikua: 682228
 - ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaro zko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
 - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leizta): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Saharako egoera larriari aurre egiteko premiazko deia

Sendagairik, elikagairik eta etxebizitzarik gabe geratu dira, eta laguntza eskatu dute; euskal elkarteek elkarlanean diruz laguntzeko kontu korrante bat ireki dute



Otsailak 27 kanpamenduan izan dute ondorio gehien uholdeek. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Egoera larrian daude sahararrak hilaren 9tik 11ra Argelian kokatuta dauden errefuxiatuen kanpamenduetan izandako uholdeak direla eta. Bertako Ilargierdi Gorriak emandako datuen arabera, 12.000 familia dira ezer gabe geratu direnak; izan ere, haimak, adobeak, etxeak, eskolak eta erietxeak desegin egin dira, eta ahuntzak, ganbeluak eta elikagaiak urak eraman ditu.

Egoera honi aurre egiteko nazioarteko laguntza eskatu du Saharako Ilargierdi Gorriak; azaldu dutenez, ez dute haima erreserbarik, iaz ez zutelako modu honetako laguntzarik jaso, eta urgentziako elikagaiak, bestalde, gehienez martxorako bukatuko direla zehaztu dute. Bestalde, putzue-tan pilatu den zikinakeriak eta tenperaturak eraginda izurri-

teen arriskua asko areagotu dela ohartarazi dute, eta eurite-ek eraginda zeuden sendagai apurrak desagertu direla kontuan hartuta, urgentziak behar dituztela gaineratu dute.

Hau guztia kontuan hartuta, Saharako Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarteek —tar-tean Tolosaldean Sahararekin— Euskadiko Fronte Politsarioarekin elkarlanean premiazko deia egin diete erakunde-eei nahiz euskal gizarteari egoera larrian aurkitzen diren sahararrak laguntzeko parte har dezaten. Horretarako, Euskadiko Kutxan 3035 0012 7401 2008 6016 kontu korrantea ireki dute bakoitzak ahal duen neurrian lagun dezan.

Laguntza hau Elkartasun Karabanan bildutakoari gehituko litzateke. Guztira, 3.500 kilo azukre, hegazuze eta konpresa batu ahal izan ziren eskualean, eta euskal erakun-

Elkartasun keinuak

J. Astibia ▶ Saharar errefuxiatuen kanpamenduetan jasan berri dituzten uholdeen harira, Leitzako Karrape Irratian asteartean diru-bilketa deialdia egin zuten, eta lau egunetan 5.300 euro jaso dituzte Leitzako eta Aresoko entzuleengandik. «Harri eta zur gaude premiazko laguntza eskariari eman dioten erantzunarekin», azaldu dute esatariek hunkituta. «Umeak ere etorri dira euren paga eskuan hartuta».

deek 150.000 euroko diru laguntza eta 45 ibilgailu bideratu zituzten. Tolosako elkarteak, bestalde, urarekin dauden arazoak ikusita, 6 ur bomba bidali berri ditu Saharara.

Iristen den laguntza beharrezkoa dute, eta are gehiago orain, dauden egoeratik; Baina sahararrek nahiz Sahararen aldeko elkarteek behin eta berriro aldarrikatu izan dute «arazoari behin betiko soluzioa emateko euren lurralde-ira itzulezko eskubidea» izan behar dutela, eta horretan «erantzukizun handiena Espainiako Gobernuak duela».

DATUAK ▶

UHOLDEEN ERAGINAK

Kalteak. Eraikuntzen %50a desegin da.

Ondorioak. 12.000 familia baino gehiagok, 158.000 lagun inguruk, jasan dituzte.

Izurriteak. Izurriteak sortzeko arriskua dago ur zikinagatik.

Janaria. Uholdeek gordetako janari gabe utzi dituzte familia ugari.

LEHENTASUNAK

▶ 17.000 haima, sendagaiak eta janaria dira lehenbailehen behar dituztenak.

LAGUNTZEKO BIDEA

Diru laguntzak. Euskadiko Kutxako 3035 0012 7401 2008 6016 kontu korrante zenbakian bideratu daitezke laguntzak.

BERROBI ▶ KULTURA

I. Tene Mujika beka irabazi du Ramon Olasagastik 'Mendiminez' lanarekin

Azken urteetan mendian hil diren hainbat euskal mendizalaren ibilbidea, biografia, soslaia eta oroitzapena biltzen ditu lanak

ERREDAKZIOA

Ramon Olasagasti berrobitar kazetariak irabazi du I. Tene Mujika Beka bere *Mendiminez* proiektuagatik.

Bitoriano Gandiagaren poema argitaragabeen bidetik eman dio *Mendiminez* izena proiektuari, eta azken urteetan mendian hil diren hainbat euskal mendizalaren ibilbidea,

biografia, soslaia eta oroitzapena osatu nahi du. «mendiminez bizi baitziren, mendia zelako haien pasioa, haien bizitza». Haien mendiminez eta bizitzaz aritu da, beraz, liburu honetan,

baina baita haien hutsuneak utzitako minaz ere, (mendia min iturri bihurtzen baita hala-koak gertatzen direnean».

Felix Iñurrategi, Jose Luis Zuloaga Zulu, Manu Badiola, Atxo Apellaniz, Miriam Garcia, Xabier Ormazabal, Antonio Miranda, Mikel Ruiz de Apodaka, Xabier Ansa eta Pumorin zendutako bost gazteak dira, hain zuzen, gogoratu nahi litzuzkeenak, beste zenbait alpinista ere ahaztu gabe. «Arrazoiak zehazten erraza ez bada ere, edozein istripuk baino zirrara handiagoa sortu izan dute gurean zo-

ritzarreko albisteok. Deitu epika, mistika, edo gaztetasun etenaren drama, mendiak badu euskal gizartean halako hunkipen ahalmena», dio egileak.

Lehenengoz *Euskaldunon Egunkaria*-n, eta *Berria*-n ondoren —TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN ere zabegile izan da— askotariko lanak egin ditu, baina batez ere mendiari buruzko informazioan berezitu da Berrobiko kazetaria. Halaber, ugariak dira arlo horretako aldizkarietan eginiko kolaborazioak: *Pyrenaica*, *Desnivel*, *Gure Mendiak*, *Euskal Herria*... Bestalde, ondorengo liburuen egilea da: *Sei arrasto Eskandinavian* (Aramaioko Sagitario Saria, Infomart, 1998) *Hiru pauso, hiru norabide* (Josu Iztueta eta Aitor Elduainenekin; Letxukale 1999) eta *Josune Bereziartu. Hatz puntak* (Kutxa 2004).

ARAMBURU
Salgai (Alegia). Apartamentua garajearekin. Berria.
Salgai (Berrobi). Pisu, baratza eta txabola. 168.000€
Salgai (Villabona). Kale nagusian pisu egokia.
Salgai (Tolosa). Pisu Laskorain kalean. Zoragamiak.
Salgai (Tolosa). Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Belate ibilbidean.
Salgai (Ibarra). 60m² lokala.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zahararen.
Alokatzeko (Tolosa). Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.
Alokatzeko (Arribas). 2 logelako pisua, Tolosatik 17km-tara.
Alokatzeko (Tolosa). Lokal giroa, Foru kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Pisu Rondilla kalean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Tabernaria. Goierriko taberna-kafetegi baterako pertsona bat behar da. Deitu 610 61 52 32 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tabernarako zerbitzaria behar da Amasan.

Lanaldi erdia. Interesatuak deitu 943 69 12 10 telefono zenbakira.
Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. Deitu 656 41 68 08 zenbakira.

SALGAI

Kopisteria. Traspasoan edo salgai kopisteria, inprimaketa digitala, prezio onean. Tolosaldean. Deitu 615 73 61 85 zenbakira.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. Atal honetan gure herrietako irudiak daude ikusgai, egunkarian publikatuak, eta publikatu ez direnak. Egun hauetan, esaterako, iazko Inauterietako argazki ugari daude zintzilikatuta, aurten datorrenaren iragarpen modura.

SUKALDARIA

Tolosako taberna batean pintxoak eta bokatak egiteko. Astean 20 ordu eta igandean jai.

Tel.: 660 178 183

GIZARTEA ▶

Leitzako eta Aresoko 120 adinduk festa eginen dute bihar

Arkupeak elkarteak zonaldeko bazkideen bazkaria eta dantzaldia prestatu ditu aurtengo ekintzei hasiera emateko

JAIONE ASTIBIA

Festa eguna dute biharkoa Leitzaldeko Arkupeak elkarteak kideek. 120 lagun inguru elkartuko dira, guztiak jubila-tuak, eta eguerdian hasi eta gaueraino ederki ibiltzeko aukera izanen dute. Urteko ekintzei hasiera emateko.

Horrela, Arkupeak elkarteak ordezkariak aditzera eman dutenez, 13:15ean meza izanen dute, lehengo urtean zendu ziren kideen alde; eta ondoren, zuzenean, 14:00ak aldera, Lan-

da jatetxera joanen dira bazkaltzera. Jan-edanak eginda, Joxe Anjel baztandarrarekin dantzaldia izanen dute han bertan, ilunabarra arte: «Bazkaria ere ederra izanen da eta jendea sasoiari jartzen da; aspertu arte dantzan aritzeko aukera izanen dugu».

Arkupeak elkarteak 200 bazkide inguru ditu Leitzan eta Areson; «batzuk Larraungoak dira, baina hemengo taldean sartuta daude», zehaztu zuten. Bere eginkizuna adinekoen aisialdirako ekintzak antolatzea

da, esate baterako, gimnasia ikastaroak prestatzen dituzte, «oso arrakastatsuak» direnak; edo oporraldiak, irteerak...

Hain zuzen ere, laster haste-koak omen dira aurtengo ekintzekin. «Lehen ateraldia Xabieraldian eginen dugu», aitatu zuten. «Eskurtsioekin hasi baino lehen, urteari hasiera emateko modua da festa egunarena».

Arkupeak Nafarroako mendialdeko 3.000 bazkide inguruk osatutako jubilatutako elkarteak da.

LEITZA ▶ PILOTA

Bengoetxea VI-Ruiz, zirt edo zart egin behar

Titin III.a-Pascualekin berdinketa haustekoa jokatu dute Adarragan gaur, 17:00etan

J. ASTIBIA

Gaur erabakiko da Binakako Txapelketako finalerdietako laugarren bikotea zein izanen den: partidu bana irabazita, berdinketa hausteko hirugarren partidua jokatu dute Bengoetxea VI.ak eta Ruizek, Titin III.ekin eta Pascualekin. Logroñoko Adarragan jokatu ere, 17:00etan hasiko den jaialdian.

Finalerdietarako pasea dago jokoan. Talka hau irabazten duena doa aurrera. Eta jokoan asko dagoelarik zer esana eman duen partidua da gaurkoa, bai pilotalekuaren aukeraketatik hasi eta piloten aukeraketaraino; Adarraga leku neutroa ez ote den, Titi-

nentzat gertuko dena izate-agatik, eta ondorioz bertara gertutatuko den zaletuaren gehiengoa aurrez suposa omen daitekeelako Triziokoaren aldekoa izanen dela.

Bestalde, pilotekin ere hautsak harrotu dira bi bikoteen iritzi kontrajarriekin, «motelak», «biziak»; baina bikote bakoitzak komeni zaizkionak aukeratu zituen: Bengoetxea-Ruizek, Punparenak, 103,4, 104,1 eta 105,1 gramokoak; Titin-Pascualek, 105,3, 105,9 eta 106 gramokoak, Ciprirenak.

Hemendik ateratzen den bikote garaileak zain izanen ditu Martinez de Irujo eta Martinez de Eulate, datorren asteburuan finalerdiei ekiteko prest.

LEITZA ▶ FUTBOLA

J. ASTIBIA

«San Kristobalen aurka jokatzea beti zaila da». Horixe da gaur bertan jokatzea duten partiduari buruz Aurrerako ordezkariak baieztatu zutena. Talde hau Lurraldeko Oho-rezko mailatik jaitsi direnetako bat dela aitatu zuten, horrek eskarmentu aldetik eta futboleko jokatze moduan «bere eragina» duela ondorioztatuz.

Gaur arratsaldean bertan, 16:00etan, San Kristobal taldearen aurka Berriozarren jokatzea duten partiduaren iragarpena egiterakoan egin zituzten adierazpen hauek.

Edonola ere, gogora ekarri behar da Arkixkileko etorrerako partidua, urrian jokatu zena, leitzarren aldeko emaitzarekin amaitu zela; 2 eta 1ekoarekin, zehazki. Era bere-



Irujo eta Arrizurieta (atzean) Aurrerako entrenatzaileak. J. A.

an, San Kristobalek jokatu dituen 15 partidutatik 8 galdutitu; 5 irabazi. Ondorioz, sailkapen taulan zazpigarren lekuan doa.

Aitatzekoa da lehendabiziko 5 taldeen eta hurrengo arteko aldea nabarmena dela: Au-

Ezka bapean, San Kristobal goekin partidu «zaila» du Aurrerak gaurkoa

Berriozarko taldea mailaz jaitsitako bat da, nahiz taularen erdian doan

rrera bigarren dela, 36-30 puntu dituztela aurrenekoek eta besteek 18tik behera. Argi dago, beraz, lehia goiko bost horien artean dagoela; baina, noski, «partiduz partidu puntuak eskuratzea» dute helburu.

Gazteak, zizurtarrekin

Aurrera gazteak, berriz, etxean du partidua, gaur 16:30ean, Ardoiren aurka. Zizur Handiko talde hau arerio indartsua dute, sailkapenean 5. lekuan doazelarik.

hilberria ▶

Sor DOLORES ARMENDARIZ ARRUABARRENA

(Leongo Karitate elkarteak lekaimeak)

Otsailaren 15ean hil zen, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bago—

Senideak: Maria (+), Pedro (+), Rosario, Joxepa (+), Konbita, Amparo (lekaimeak) (+), Martin (+) eta Rosa; ezkon anaiak-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR, IGANDEA, goizeko 11:00etan Zaldibiako Santa Fe parroki elizan izango den mezara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ otsailaren 16an eman zitzaion lur Leonen ZALDIBIAN, 2006ko otsailaren 18an



hilberria ▶

Fermin Pikabea Dukaz

(Klara Buruntzaren alarguna)
(Intxarkundia Batailoiko gudarria)

Zu lur zara
ur zara,
zuhaitz zara,
dana.

Aingeru zara,
ederra zara
zu ona zara,
dana.

AITONA, ASKO MAITE ZAITUGU
BETI GURE BIHOTZETAN EGONGO ZARA

Amagoia, Nagore eta Aitor, Ainhoa

ORERETA, 2006ko otsailaren 18a



hilberria ▶

Fermin Pikabea Dukaz

(Klara Buruntzaren alarguna)
(Intxarkundia Batailoiko gudarria)

Herenegun hil zen 100 urte zituela

Eraza izan da zu mailatzea.
Ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti gurekin izango zara.
Asko maite zaitugu.

Seme-alabak: Arantza eta Migel Etxeberria, Jose Ignacio eta Pantxika Pagoaga (+); bilobak: Amagoia, Nagore eta Aitor Iraola, Ainhoa.

GAUR larunbata, hilak 18, arratsaldeko ZAZPIETAN, Erreteriariko JASOKUNDE elizan izango den hiletara etor zaitzeten eskatzen dizute. Guztiok eskerrik asko aldeaz aurretik.

ORERETA, 2006ko otsailaren 18a



▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko otsailaren 18a, larunbata ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

11

hotzena

07



BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:



gaur: ez / bihar: ez

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila



HITZA-KO BEZEREN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Leitza. *Larru haizetara.* 20:00etan, zinema aretoan.

DEIALDIAK

Alkiza. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak irri-terapia ikastaroa antolatu du, ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Etxean. Izen-ematea, Mankomunitatean (943 69 39 30).

Anoeta. Dantza-soka. 09:00etan, baserriz baserri abiaturiko dira dantzan; 13:00etan, neskek egingo dute dantza-soka, plazan; 17:30ean, mutilen txanda; jarraian, erromeria frontoian, AGAk antolatuta; gauean, festa Gaztetxean.

Berastegi. Gaztainondo jubilatuen elkarteak Arnedora (Espainia) irteera antolatu du martxoaren 14an. Bazkideek 27 euro eta gainontzekoek 30 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea, elkartearen.

Gaztelu. Gizarte zentroa eta apartamentu babestuen inaugurazioa. Bihar, 12:00etan. Lunch-a, Alurr dantza taldea eta txistulariak izango dira. **Tolosa.** Eresoinka abesbatzan aritutako kantarietako bazkaria antolatu dute martxoaren 12an. Informazio gehiago eta izen-ematea 625 70 36 84 edo 677 43 89 49 telefono zenbakietan.

Tolosa. Iraupen eskia behar den bezala ikasteko, 1992-93-94-95 urteetan jaiotako gazteboentzat ikastaroa antolatu du Alpino Uzturre elkarteak, martxoaren 4-5 eta 11-12 asteburuetan, Somport-Candanchun. Informazio gehiago eta izen-ematea 685 776 504an. **Tolosa.** EHNA tramitatzeko aukera. 11:00etatik 14:00etara, udalebxean. 3 argazki, errolda agiria eta 15 euro eraman behar dira.

Tolosa. *Eta orain zer?* Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaia jarriko ditu gaur, 11:30etik 13:00etara, Trianguloan, Berdura plazan eta Iparragirren. Herritar guztiak animatu ditu sinatzera.

Villabona. Malabare tailerra: mazak, zankoak, makil txinatarrak, pilotak, karioka, zinta, swinga, oreka soka, diaboloa... 11:00etan, Errebote plazan. Haur eta gazteei zuzenduta.



Lor eta Kasu! taldeak, gaur, Gaztetxean

IBARRA ▶ Maila handiko taldeak Ibarrara ekartzea lortu dute Gaztetxeok, eta gaur izango da haiek zuzenean entzuteko aukera. Lor (argazkian) eta Kasu! dira, hain zuzen ere, Gaztetxeiko taula gainera igoko direnak. Iruñe- rriko Kasu! taldeak zabalduko du gaua, 22:30ean. Jarraian, Elorrioko Lor laukoteak eskainiko du zuzeneko. **Bakoitzari berea** beren azken laneko kantak aurkeztuko dizkiete bizkaitarrek Gaztetxera joaten direnei. HITZA

ERAKUSKETAK

Tolosa. Luis Mari Nuñez margolanak, Aranburu Jauregian. Gaur azken eguna.

INAUTERIAK

Amezketeta. Talai-dantza entseguak. Asteazkenetan eta ostiraletan, 20:30ean, Gazte Taldeko lokalean.

Lizartzeta. 07:00etan, kalejira;

ordu erdi beranduago, puske biltze irteera; 09:30ean, gosaria; eguerdian, mozorro gurdi eta txaranga irteera; 13:30ean, kalejira; 18:00etan, gurdiak eta mozorroak kale nagusian; ondoren, trikipoteoa; 21:00etan, afaria Aztiñondo sagardotegian trikitilarietara.

Tolosa. 10:30ean, erraldoien eta buruhandien irteera, Plaza Zaharretik; 15:00etan, haurren Txanxo Lehiaketa Zentro

Sozio-Kulturallean; 16:00etan, Aiz-Orratz elkartearen txaranga irtengo da kalera; 16:30ean, haur jaialdia, Beotibar pilotalekuan, Aiz-Orratz-ek antolatuta; 19:30ean, Kaldereroen konpartsa, Triangulotik.

Tolosa. Arpegi taldeak Ostiral Mehean Beotibar pilotalekuan eskainiko duen *Zirkuko mutilak* izeneko ikuskizunerako sarrerak salgai jarri ditu Triangulo

kafetegian, Cantabrico eta Atodo tabernetan, 6 eurotan. **Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak. Asteartean, 20:15ean, Musika Eskolan.

MUSIKA

Villabona. Sixty Sexers eta Potemkin. 21:30ean, Gaztetxean.

ZINEMA

Leitza. *Una historia de violencia.* Bihar, 19:30ean, zinema aretoan.

Villabona. *Cronicas de Narnia.* Gaur eta bihar, 17:00etan, Gurea zinema aretoan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Leitza. Plaza, M. Elbarren, 35. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrattia

(107.5, 101.2 FM)
10:30-13:00. *Hitzak* hegan magazina: elkarrizketak, Mundurako leihoa, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

Goiko irrattia

(107.0 FM)
13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



LIZARTZAKO INAUTERIAK

Beriz ere mozorrotuko gara. Urte askoan, attona, denen partez.

HITZA,

zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeke bulegoa - LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!